

Herri Aldizkaria

Otamotz

2005eko azaroa 111. alea



Gabonen bezperan, herriko merkataritza hizpide

KOLABORAZIOA: JOSU AZTIRIA

ELKARRIZKETAK: JON TORNER - IKER ALVAREZ - MIKEL LIZARRAGA

IZERDI PATSETAN: IPEÑARRIETA ETA BALENTIÑA, DESAFIORAKO PREST

PREMANK

KANPO-KONTRATAZIO BIDEZKO PREBENTZIO ZERBITZUA

**GURE LANAK
PREBENTZIOA
DU HELBURU**



KALITATEZKO ZERBITZU ERAGINKORRA
GERTUTASUNA, BIZKORTASUNA ETA BEZEROARI ARRETA

Labeaga, 56-58 - 20700 URRETXU (Gipuzkoa)
☎ 943 03 66 94 - ☎ / fax: 943 72 64 63
e-mail: premank@euskalnet.net

IRNASA EURO, S.L.

AHOLKULARITZA ETA KALITATE,
INGURUMEN ETA
LAN-ARRISKUEN ARLOKO
SISTEMAK

Labeaga kalea, 60 ent. N
Tel. / fax: 943 72 64 63
e-mail: irnasa@euskalnet.net
URRETXU

ARGAZKI ZAHARRA



Asteartean Santa Zezilia eguna izan zela eta, zer egokiago musika talderen baten garai bateko argazkia jartzea baino. Ramon Esnaolak utzitako argazki honetan 1959an Zumarragako Musika Banda osatzen zuten kideak ikus ditzakegu.

Zutik: Juan Errekalde, ..., Nemesio Calvo, Luis Mari Barrutia, ..., Javier Biain, Senen Soria, Jesus Gonzalez, Lorenzo Peña, Benito Rodanes, Jesus Alvarez, Antonio Valverde, Alejandro Dominguez, Bienvenido Valverde, Ramon Esnaola, Castor Rodriguez, "Likete" eta Jesus Alvarez.

Eserita: Sebastian Biain, Luis Korta, Guillermo Serrano, Felix Rodanes, Callejo, Eustaquio Mendizabal eta Martin Zenekorta.



Aldizkari honek Euzko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetza, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkartea, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel: 943 03 64 74 / 605 71 87 73


Koordinatzailea: Asier Zaldúa **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Alex Areizaga, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Maider Hernando, Jonmikel Insausti, Itziar Ormaetxea, Jon Ormazabal, Amala Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldúa.

Disainua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua: SS-742/96 **ISSN:** 1136-7318 **Tirada:** 2.000 ale.

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

KLIK ETA KLIK



KLIK ETA KLIK



Negua badatorrela eta, hona hemen iaz Carlos Mediavillak herriko baserriei ateratako zenbait argazki.



Argazkiak: A. G. M. - 943724012 - Fax: 943725431 - ZUMARRAGA

Gabonen bezperan, herr

Gabonak heltzear dira, urteko sasoirik oparoena merkatarientzat. Egun hauek nola bizi dituzten jakiteko eta Urretxu eta Zumarragako merkataritzaren egoeraren berri izateko, bi merkatarri beteranorekin solasean izan gara. Angeli drogeriako Angeli Urtaranek eta Aresti liburudendako Lourdes Sasietak urteetan pilatutako esperientziak eta euren arteko adiskidantzak lagunduta hitz egin dute guretzat.

Asko aldatu al da merkataritza urte hauetan guztietan? Zertan?

Angeli: Lourdesek ez zuen horrenbeste nabarituriko, baina erabat aldatu da. Duela 20 urte egiten nuen kaxa eta gaur egungoa antzekoak dira.

Lourdes: Eta zergatik uste duzu eman dela hori?

Angeli: Garai hartan ez zegoen gurearen moduko drogeriarik herrian. Egun, berriz, lehia askoz ere handiagoa dago. Bestalde, gazteen kontsumo ohiturak aldatu egin dira: ia asteburu oporretara joaten dira, zentro komertzialetara joaten dira arratsalde pasa... Hala, denda txikitakook espezializatu beharra dugu; toki guztietan saltzen ez duten hori saldu.

Lourdes: Nik auzo-dendak ezagutu ditut, liburudenda ireki aurretik, eta haiek etxeko sukaldearen modukoak ziren. Bezeroarekin adiskidantza egiten zen eta tartetxo bat zutenean dendara joaten ziren solasalditxo egitera. Orain, kafea hartzera joaten dira. Bezeroarekin tratua askoz ere zuzenagoa zen. Egun, gurea merkataritza lan hutsa da ia. Lehen apenas irteten zen auzotik erosketak egiteko. Egun, berriz, denda gehiago daude eta espezializazio handia.

Angeli: Lehen bezeroek euren arazoak kontatzen zizkizuten. Rojas Marcos psikiarri ama askoren depresioak dagoeneko dendarioi arazoak kontatzeko ohitura galdu delako ematen direla entzun nion behin. Jendeak dagoeneko ez du inorekin hitz egiten, karroa bete eta kitto! Orain oso gertukoei soilik kontatzen dizkiegu gauzak.

Lourdes: Denbora ere falta da. Bizimodua asko aldatu da eta berarekin merkataritza. Lehen haurrek kalean jolasen zuten... Aipatu bezala, egun merkataritza lan hutsa egiten dugu ia: erosi eta saldu. Bezeroaren gustuko produktua ez baduzu, joan egingo da. Lehen arkatz bakarra zego-



LOURDES SASIETA

Lourdes Sasietak bizitzaren zati handi bat darama merkataritzan lanean. Oso gaztetan bere izebaren mertzerian hasi zen lanean eta duela 23 urte, berriz, Aresti liburudenda ireki zuen. Magisteritza ikasia, haurrak gustuko ditu eta hezkuntzarekin lotutako denda irekitzea erabaki zuen.

ANGELI URTARAN

Carlos Nuñezek Legazpi kalean farmazia eta drogeria ireki zituenean Angeli Urtaran jarri zuen drogerian langile. Nuñez hil eta bi urtera, duela 18 urte, Angelik drogeria bere kargu hartu zuen. 38 urte daramatza denda horretan lanean eta 2008 urte hasieran jubilatuko da.

Herriko merkataritza aztergai

en, orain bost mota daude eta bostak izan behar dituzu.

Angeli: Produktu ezberdin asko ekoizten dira, iragarri egiten dira eta bezeroa eske etortzen zaizu. Publizitateak eragin handia du eta sekula ez dut ondo ulertu zergatik. Zergatik izan behar da iragarkikoa betikoa baino hobea? Produktuak eten-gabe aldatzera behartzen gaitu.

Lourdes: Nire ustez hori da gure lanetako bat, zentro komertzialengandik bereizten gaituena: gure ezagupena bezeroaren eskutan jartzen dugu. Zentro komertzialetan ez dago halako ezagupenik.

Angeli: Hori hala da. Zentro komertzialean zalantza duen bezeroak arduraduna bilatu beharra du. Gu, ordea, bertan gaitu: tratua pertsonalizatua da eta argi eta garbi esaten diogu zer den gehien komeni zaiona.

Lourdes: Horrek balio handia du gaur egun. Zentro komertzialak aisialdiarekin lotuagoak daude.

Herrian garai batean baino denda gehiago daudela diozue, baina lokal huts asko ere badaude.

Angeli: Herrian denda gehiago daude, baina apenas irekitzen dira jantzi-dendak adibidez. Egund, denda irekitzea oso arriskutsua da. Izan ere, alokairuak oso garesti daude. Hala, lokal huts asko daude.

Lourdes: Ez dut uste ekonomia kontuagatik bakarrik denik. Izan ere, dendak sakrifizio handia eskatzen du. Dendan ordu asko sartu behar dira eta jendea ez dago horretarako prest.

Angeli: Nik, ordea, merkataritzan lan egin nahi duen jendea badagoela uste dut. Baina, zertan espezializatu? Dena den,

egia da ordu asko sartu behar direla. Igandeetan ere lan egina naiz.

Lourdes: Guk lehen zazpi urtetan igandeetan ere ireki genuen eta, egun, larunbat arratsaldeetan irekitzen dugu. Bestalde, sekula ez dugu zortzietan ixten. Dena den, oso gustukoa dut nire lana.

Angeli: Nik gero eta lanerako gogo gutxiago dut, ordea. Jubilatzeke irrikitan nago dagoeneko. Izan ere, bizitza osoa eman dut dendan lanean. Gaztaroa bertan eman nuen, baina sekulan ez dudala ezer faltan izan eta ez dudala lan arazorik ere esan behar da.

Zertan egin du hobera merkataritzak?

Angeli: Produktuak hobetu dira batez ere. Gero eta gauza gehiago egiten dira eta enpresen arteko sekulako lehia handiagoa dago. Guk ere hobera egingo genuela suposatzen dut, dendarik hobeak izango al gara!

Lourdes: Lanean, garai batean baino askoz ere ezagutza handiagoa dut.

Angeli: Bestalde, ikusi bezain pronto dakigu nolakoa den bezeroa: berehala dakigu nolako zerbitzua eskaini behar diogun. Psikologia asko lantzen da lan honetan.

Lourdes: Guztiok ezberdinak gara: batzuk lotsatiagoak, besteak irekiagoak... Nire ustez, jendaurreko lan guztietan bezeroari askoz ere harrera adeitsuagoa egiten zaio gaur egun. Konpetentziak hortan lagundu du.

Angeli: Mundu guztiari berdin hartu behar zaio eta, gero, bezero bakoitzaren araberrako zerbitzua eskaini behar da. Guk ezin dugu egun txarrik izan, umore onez egon behar gara beti.

Lourdes: Guk, ordea, bezeroen arazoan berri izaten dugu batzuetan eta guk ere sufritzen ditugu.

Herritarrok kanpora erosketak egitera asko ateratzen garela uste al duzue?

Lourdes: Ohitura hori aisialdiarekin lotuta dago.

Angeli: Larunbat arratsaldeetan haurrak dituzten bikote gazte asko joaten dira zentro komertzialetara. Lehen jende gehiago izaten zen herriko dendetan. Behin bakarrik izan naiz halako batean eta bertako giroa, airea... zorabiatzeko modukoak iruditu zitzaizkidan.

Lourdes: Bai, baina Urretxu-Zumarragan ez dago hurrekin non egon. Hiru haur badituzu, nora joan zaitezke beraiekin eguraldi txarra egiten duen egunetan? Tabernak eta frontoia ez dira irtenbidea. Zentro komertzialetako airea ez da oso osasungarria izango, baina herriotan familien aisialdia hobeto landu beharko litzateke. Ez al dago plazak nolabait ezaltzeko modurik? Zumarragako kiroldegiko taberna ere itxita dago... Gurasoentzat eta haurrentzat aproposa den tokiren bat behar da: batzuek kafea hartzeko eta besteek zainduta jolasteko. Antion ere aterperen bat jarri zitekeen, ez da luxuzko kafetigirik edo tabernarik behar.

Herrian ekitaldiren bat antolatzen denean nabaritzen al duzue?

Angeli: Ez. Santa Lutzitan lehen izugarri saltzen zen, esaterako, baina orain ia inork ez du denda irekitzen. Lehen baserritarrek euren bisita denetik erosteko aprobetxatzen zuten. Egund, denok egunean bizi gara: baserritar guztiak egunero herrira



-INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK
-ELEKTRAGAIK
-BURNIZKO TRESNERIA

Legazpi, 4 etxeazpia eskuina - ☎ 943724012 - Faxe: 943725431 - ZUMARRAGA

HILABETE HONETAKO GAIA



jaisteko aukera dugu.

Lourdes: Gainontzekook ere garai batean janaria biltzeko ohitura genuen.

Angeli: Egun gauzatxoren bat besterik ez dugu erosten egun horretan.

Lourdes: Egunean bizi ahal bagara, herrian bertan behar dugun guztia eros dezakegulako da. Txakurak non orraztu ere badugu...

Angeli: Esan bezala, espezializazioa da bidea. Denda ireki nahi duenak zer edo zer ezberdina eskaini behar du. Denetik saltzen zuten dendak, betikoak, aspaldi joan ziren pikutara.

Inguruko herrietan egoera antzekoa dela uste al duzue?

Lourdes: Nire ustez antzekoa da.

Angeli: Beasainek hobera egin duela eta Ordizia jaitsi egin dela esaten da.

Lourdes Sasieta:
"Herriotan familien aisialdia hobeto landu beharko litzateke"

Egia esan, ez du ematen Ordiziako merkataritzan berrikuntza handirik eman denik. Tokian-tokiko ekonomiaren egoerak eragin handia du. Beasainen CAF zein ondo dabilen ikustea besterik ez dago. Horrek segurtasuna ematen du eta dendariei eurei gogo handiagoz lan egiteko eta inbertitzeko indarra ematen die. Arrasaten eta Bergaran ere merkatariek lan handia dutela esaten dute. Urretxu eta Zumarragako merkataritzak enpresekin batera egin zuen behera.

Lourdes: Liburudendan ez ditugu horrenbeste nabaritzen ekonomiaren gorabeherak eta, gainera, gure bezeroak ez dira kanpora joaten erostera. Izan ere, jendeak fotokopiak edo aldizkariak momentuan behar ditu. Arropa erosteko denbora behar da eta aisialdian erosten da. Gure dendak, berriz, unean-uneko beharrak asetzen ditu eta momentuan erosten da. Jostailuei dago kienez, irakaslea naizenez, hezkuntza bultzatzen dutenak saltzen ditugu. Horregatik eta merkatalgune handien prezioekin lehia ezin garelako, ez ditugu Gabonetako kanpainan modan jartzen dituen jostailuak erosten.

Zentro komertzialei aurre egiteko modurik ikusten al duzue?

Angeli: Horiekin lehiatzerik ez dago. Norberak aukeratu behar du zer nahi

www.megadenda.com

megadenda

ramos

Bergara, 6
20005 Donostia
Tel.: 943 42 63 50

bilintx

Paseo Colon, 8
20302 Irun
Tel.: 943 63 17 26

Arostegieta z/g
20400 Tolosa
Tel.: 943 67 35 33

Ibargarai, 12
20570 Bergara
Tel.: 943 76 40 50

Megadenda
zure aukera musika eta liburutan

2005eko azaroa

HILABETE HONETAKO GAIA

duen: harreman zuzena eta adeitsua edo hara joan eta besterik gabe erosi. Askotan gogoratzen naiz garai bateko herriko dendetaz: Dolores Nietorena, Nati ogi saltzailea... Emakumeen solasaldiak dendetan, nola zorretan uzten genien...

Lourdes: Tratua askoz ere zuzenagoa eta goxoagoa zen eta jendeak horren beharra du. Hiri handietan, adibidez, denda txikiak funtzio hori betetzen dute. Bezeroek, gizaki guztiok, konfidantzazko tratua behar dugu. Hiri handietan ez gara inor eta horrek segurtasun eza ematen digu.

Angeli: Egun ez dago barrena norekin hustu eta gaixotasun asko sortzen dira. Presaka bizi gara eta ez dugu nork entzungo gaituen.

Lourdes: Horretarako tartea hartzen dugunean beti dugu zer kontatu eta asko ikasten da besteekin hitz egiten.

Instituzioek merkataritxiaren alde nahikoa egiten duela uste al duzue?

Lourdes: Nire ustez garrantzi handiagoa eman beharko liokete eta alokairu merkeak bultzatu. Gure lanpostuei ez zaiela behar bezainbesteko garrantzirik ematen uste dut. Lagun asko gara merkataritza txikian lan egiten dugunak eta merkataritza txikiak sortzen dituen lanpostuak hobeto babestu beharko lituzkete. Errazegi irekitzen dira merkatalgune handiak.

Angeli: Gainera, askotan zentro komertzialetako langileek oso lan baldintza txarrak izaten dituzte.

Gabonak heltzeaz dira, nola dator aurtengo kanpaina?

Angeli: Kanpaina honetaz ez dugu kezakerik. Nik Erregetarako saltzen dut batez ere, nire dendakoak beste opari baten osagarriak izaten baitira eta, gainera, helduei zuzenduak. Bestelakoan, urte guztian antzera saltzen dut. 10 edo 15 urte gutxiago izango banitu, denda guztiz berrituko nuke.

Lourdes: Jendeak herrian erosten ditu, batik bat, Gabonetako opariak. Izan ere, gaur egun berehala ekartzen digute bukatzen zaigun produktua. Horrekin asko irabazi du merkataritza txikiak. Hori dela eta, dagoeneko ez dira opariak aurrerapen handiz erosi behar. Azken unean egin daitezke erosketak eta herrian bertan, gainera. Egun denborak balio handia duenez, hori oso garrantzitsua da.



Angeli Urtaran:
"Denda irekitzea oso arriskutsua da. Alokairuak oso garesti daude"

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Lourdes: Nire ustez espezializazio-ra jo beharra dugu. Horretaz gain, egunean egon beharra dago. Guk, adibidez, argazkigintzan ematen diren aurrerapen guztien gainean egon beharra dugu.

Angeli: Lehen merkataritza lasaigo lan egiten genuen. Bestalde, egun merkekin lan egitea askoz ere zailagoa da. Izan ere, konturazterako zurekin lana egiteari uzte diote. Urtetan eurekin izandako harremanak ez du batere balio eurentzat.

Lourdes: Tratua asko landu behar da: lana gustuko izan eta ahalik eta traturik onena eskaini. Bestalde, zintzotasuna izugarri garrantzitsua da; egia esan behar zaio beti bezeroari.

HARATEGIA URDAITEGIA
☎ 943 72 00 61
Leturiatarren enparantza, 2
ZUMARRAGA

Keros Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioak
Opariak
Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

PLAZAOLA
ITURGINTZA
Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
943 72 13 70

colors
arropa informala
Barrenkale
Urretxu
943 72 40 57

UROLA
ELEKTRATRESNAK
☎ 943 72 02 15 - Faxa 943 72 52 91
Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Jon Torner, irudimen be

Zumarragarra Ondarroako "Azken agurra"

Jon Torner zumarragarra Ondarroako Bolo-Bolo aldizkariak antolatzen duen Azken Agurra Gutun Testamentu Lehiaketako zazpigarren edizioa irabazi du "Muskerra eta izeberga" lanarekin. Kirmen Uribe idazlea kide zuen epaimahaiak zumarragarren lanaren orijinaltasuna, ironia eta

hizkera azpimarratu zituen. Argia aldizkarian lan egiten duen Tornerrek iaz parte hartu zuen lehenengoz lehiaketa honetan eta aipamen berezia jaso zuen. Berarekin hitz egiten izan gara literaturzaletasunari eta Ondarroan jasotako sariari buruz.



Sari banaketa ekitaldian, Ondarroako lanik onenaren saria irabazi zuen Edume Urrestirekin.

Idazteko zaletasun handia al duzu?

Egia esan, ez. Kazetari lanean idazten dut, baina hortik kanpo ez dut batere idazten. Duela bi urte izan nuen Ondarroako lehiaketa honen berri eta, gaia interesgarria iruditu zitzaidanez eta gehienez bi orrialde idatzi behar direnez, zer edo zer idaztea erabaki nuen. Erabakigarriena lanaren luzaera mugatua izan zen, alfer samarra bainaiz. Bi orrialde idazteko gai izango nintzela pentsatu nuen.

Zer dela eta iruditu zitzaizun hain interesgarria gutun testamentua idaztea?

Gutun bat idaztea nobela bat idaztea baino errazagoa da, norberaren paranoiak idazteko aukera ematen baitu. Dena den, bigarren lan hau ez dut gutun moduan idatzi. Bestalde, gaiak ironia lantzeko aukera ematen duela iruditzen zait.

Nolakoa izan zen iaz aurkeztu zenuen gutuna?

Iaz gutun nahiko normala idatzi nuen, testamentu modukoa. Bururatu zitzaizkidan tontakeria guztiak bata bestearen atzetik idatzi nituen eta, azkenean, aipamen berezia irabazi nuen. Iazko gutuna emazteari eta seme-alabei zuzendua zegoen.

reziko kazetaria

literatur lehiaketa irabazi du

Hondasun bezala pitokeriak utzi eta halakoak egin nuen. Harranta gelditu nintzen aipamen berezia eman zidatela esan zidatenean. Iazko lehen saria Leire Bilbaok irabazi zuen eta aipamen bereziak Xabier Mendigurenek, Enbeitatar batek eta nik irabazi genituen.

Aurtengora iazkoak animatuta aurkeztuko zinen...

Aipamen berezia lortu nuenez, aurtengora aurkeztea erabaki nuen. Txukun samar atera zitzaizkidan pentsatu nuen, baina ez nuen inondik inora uste irabaziko nuenik. Ezinezkoa zela uste nuen. Beno, partida berean bost penalti huts egitea (Jose Luis

pertsonaia?

Pertsonaia nagusia mozortu eta drogatzearen ideia Hunter S. Thompson estatubatuarren "Miedo y asco en Las Vegas" liburutik plagiatu nuen. Pertsonaia zentzurik gabeko gauza xelebreak esan eta egiten jartzeko bide ematen zidala ikusi nuen. Lanbideari dagokionez, koadrilako jendearen lanbideen artean aluena zein den pentsatzen jarri eta azkar asko hartu nuen erabakia: bankero peseteroa!

Epaimahaiak zure lanaren orijinaltasuna, ironia eta hizkera azpimarratu zituen. Zer diozu zuk?

Hori izan daiteke, euskaraz nik baino txukunago idazten duten milaka pertsona egongo dira. Euskaragatik irabaziko ez nuela jakinik, banekien baita ere gaiari norabide berezia eman beharke niola. Iaz irabazi zuenak gaia serio hartu zuen, baina ni, horrela idatzita, ez noa inora.

Sari honek alferkeria alde batera utzi eta gehiago idaztera animatuko al zaitu?

Gehienez bi orriko luzerak erakarrira idatzi nuen eta berdin jarraituko dut. Beste lehiaketaren bateko gaiak erakartzen banau, orri gutxi idatzi behar baldin badira eta idazteko denbora eta gogoia badut, idatziko dut. Normalean, etxera heldu eta ez naiz idazten jartzen. Eseri eta telebista ikusten dut, lagunekin poteatzera irteten naiz, futboleko jokatzera joaten naiz... edozer idazten hasi baino lehen. Dexente irakurtzen dut, baina idatzi lanean bakarrik. Kasualidadez asteburu pare bat etxean gelditu nintzen eta horiek baliatu nituen testamentu gutuna idazteko.

Ondarroan zure zain izango dira...

Beharbada datorren urtean berriro aurkeztuko naiz. Ea datorren urtean sari banaketa eguna, Santu guztien eguna, asteburu tokatzen den. Izan ere, animatzen hasi ginenean alde egin behar izan genuen sari banaketaren ondorengo afaritik.

“Kazetari lanean idazten dut, baina hortik kanpo ez dut batere idazten”

izeneko atezain bitxi baten aurka) ere ezinezkoa zela uste nuen eta Amorrorturen gizonak egin zuten.

Zer nolakoa da 600 euroko saria eman dizun gutuna?

Testamentua absurdoa da eta bost leerro besterik ez ditu. Gainerakoan bost leerro horiek idaztera nola iritsi naizen kontatzen dut: taberna batean nire abokatuarekin elkartu nintzela, pixkanaka whisky-ak edaten hasi ginela, burua galdu nuela eta, agiriaren artean ibiltzeaz nazkatuta, aho-zapitxo batean idatzi nuela emazteari zuzendutako testamentu ulertezina.

Pertsonaia nagusia bete-bete eginda dagoen bankeroa da. Arrazoiz bereziren batengatik hautatu al zenuen halako

MURUA
Oinetako konponketa

Laruzko erroren konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan



Iker Alvarezek Olen

Urretxuarrak "Olentzero eta subilaren la

Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren XVI. Astean estreinatu ondoren, abenduaren 23an helduko da zinemetara "Olentzero eta subilaren lapurreta". Kalitate handiko marrazki bizidunen filme honetan Iker Alvarez urretxuarrak parte hartu du, animazio zuzendari lanetan. Berarekin hitz egiten izan gara bere jardunari buruz.

Nola heldu zara marrazki bizidunen mundura?

3D ikasketak egin nituen, etxean laburmetraia proiektu bat egin nuen eta proiektu hau konpainietara bidali nuen. Galiziatik eta Durangoko Baleukotik deitu zidaten, baina Galiziara joatea bizimoduz guztiz aldatzea suposatzen zuenez, Durangora joan nintzen. Lau urte daramatzat bertan.

Nolatan erabaki zenuen 3D ikasketak egitea?

Andoainean ikus-entzunezko ikasketak egin nituen, baina ez du animazioarekin inongo zerikusirik. Animazio ikasketak Donostian egin nituen, baina ez dute animatzen ikasten, XSI programa erabiltzen baizik. Orain Maya programa erabiltzen dugu lanean. Programa hau eta Softimage dira punta-puntakoak, munduko ekoizpen guztietan erabiltzen direnak.

Zer lan egiten dituzue Baleukon?

Duela urte batzuk tipo batek film

Alvarez Zintzo-Mintzoren egoltzara etorri zen eta filmako pertsonaia gaiztoak aurkeztu zizkigun.



bat egin eta Goya saria eman zioten. Hori ikusita, enpresa sortzea erabaki zuen eta jendea hartu zuen. Gure lehen pelikula "Betizu" izan zen, duela lau urte. Pelikula kaskarra da, baina elkarrekin egin genuen lehen filma zela kontuan izan behar da. Ondoren "Unibertsoariak" filma egin genuen, aurrekoa baino hobea. Pertsonaia horiekin ETBrentzako 15 ataleko telesaila egin genuen. Iaz, berriz, "Olentzero" egin genuen. Bukatzeko, aurten "Olentzero"-ren bigarren atala egin dugu. Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astean estreinatu dugu eta gustura gelditu gara: orain arte egin dugun filmik onena da.

Zer esango zenioke jendeari "Olentzero

eta subilaren lapurreta" ikustera joan dadin?

Nire ustez, merezi du. Animazioa gustuko duen jendeari eta Euskadin animazioa egitearen alde dagoen jendeari gustuko zaiola uste dut. Nahiko ondo dagoela uste dut.

Zertan ari zarete orain?

Argentinan "Ratoncito Pérez" filma egiten ari dira, benetako irudiez eta animazioaz osatuta dagoena, eta gu animazioaren zati bat ari gara egiten. Ea gauzak ondo irteten diren! "Betizu"-ren bigarren zatia egiteko asmoa ere badagoela uste dut. Urtero film bat egiten dugu, Gabon inguruan estreinatzen dena.

Olentzero dakar opari "Lapurreta" filmaren animazioa zuzendu du

Animazio zuzendaria zara, zein da zehazki egiten duzun lana?

Animatzeaz gain, zuzendariarekin batera pertsonaiak nola moldatu behar diren erabakitzen dut. Sei edo zazpi animatzaile gaude guztira. Enpresan hogeitaz lagunetik gora gaude dagoeneko, baina ez ditugu filmak soilik egiten. ETBrako infografiak ere egiten ditugu, esaterako.

Haurrentzako filmak soilik egin dituzue...

Dagoeneko edozein gidoirekin filma egiteko eta Europa mailan lehiatzeko gutxieneko maila lortu dugu, baina dirua ez dugu guk jartzen... Dirua enpresaren jabeek jartzen dute eta lana egiteko modu bat dute: hemengo jendea ezagutzen dute, badakite dirulaguntzak non lortzen diren... Haurrei zuzendutako produktuetan arriskatzeko euren dirua eta badakite horiekin aurrera egin daitekeela. Izan ere, halako film bat egiteko 50 milioi inguru behar dira.

Euskal Herria inguruan ere gauzak antzera al dira?

Galizian "Don Quijote" egiten ari dira eta, azken finean, Espainiako betiko kontua da. "La noche de San Juan" ere egin zuten... Normalean, hemen inguruan tokian-tokiko istorioak erabiltzen dira.

Helduentzako zer edo zer egitea gustatuko al litzaizuke?

Pixar etxearen filmatuko istorioak ere haurrentzako dira, baina gidoiak eta elkarrizketak helduentzako modukoak dira. Azkenean, adin guztietako jendeak ikusten ditu film horiek. Ipuinak dira, baina beste era batera landuak daude.

Zer nolako filmak atsegin dituzu zuk?

Sartu nintzenean ez nuen ideia handirik. Orain, lanean Japonetik beltzen den guztia ikusten dugu. Izan ere, urte asko daramatzate honetan lanean eta izugarriak



Zuzendaria: Juanjo Elordi

Gidoia: Unai Iturriaga

Formatua: 3D-ko animaziozko filma

Iraupena: 78 minutu

Estreina: Abenduaren 23an

Sinopsia: Gabonak dira Pirinioetako herrixka biki batean. Olentzerok ballarako haurren gutunak jaso ditu eta "subil magiko"-aren bitartez nola portatzen diren ikusiko du. Negozio-gizon gaizto bat agertu da eta basoa botatzeko asmoa erakutsi du, bertan eskil estazio bat eraikitzeko. Olentzeroren subila eta haurren gutunak lapurtuko ditu, eta baliteke bere erruz haurrak oparirik ez jasotzea. Anje ikazkin gazteak gauzak bere onera ekarriko ditu herrixkako beste haurren laguntzaz.

dira. Tim Burtonen animaziozko pelikula ere atsegin ditut. Internetetik gauza asko jaisten ditugu, animazioaren kontua oso azkar baitoa. Izan ere, artea eta teknologia uztartzen ditu.

Zein da Japoniako eta EEBBetako animazioaren eta hemengoaren artean dagoen alderik handiena?

Guk zortzi hilabetetan egin dugu "Olentzero" filma, beti bezala nahi baino azkarrago egin behar izan dugu. Pixar

enpresan, ordea, hiru edo lau urte ematen dituzte filma bat egiten. Aurrekontu aldetik, berbera: beraiek lehen mailan daude eta gu erregionalean. Animazio on-ona egiteko denbora asko behar da, baina guk ez dugu denbora hori.

Kanpora joatea gustatuko al litzaizuke?

Bai, baina lanean lagun dexente egin ditut eta gauzak gero eta hobeto egiten ari gara. Dena den, egunen batean lana falta bada-edo, kanpora joan beharko dut. Lan honetan jende asko batetik bestera ibiltzen da. Durangotik Galiziako eta Madrilera jendea pasatu da, esaterako. Gurekin ibilitako bat EEBBetan izan zen "El señor de los anillos" filmaren bideojokoan egiten.

Telebistan botatzen dutena zer iruditzen zaizu?

Kateek segurura jotzen dute eta normala da. Azken finean, dirua irabazteko makinak dira. Horregatik ibiltzen gara gu interneten, telebistan betiko gauzak botatzen dituztelako: betiko istorioak, antzeko gidoiak... Interneten denetik duzu, baina marrazki bizidunak haurrak telebistari begira egon daitezkeen besterik egiten ez diren produktuak dira.

"Shin Chan"-ek zeresan handia eman du azkenaldian. Zer iruditzen zaizu?

Gauzak kontatu nahi duzunaren arabera egin behar dira. "Shin Chan" tele-saileko marrazkiak oso sinpleak dira, baina oso ondo funtzionatzen du eta hor dago gakoa. Marrazki oso ikusgarriek porrot egin dezakete eta elkarrekin hitz egiten duten bi pilotek arrakasta itzela izan dezakete. Garrantzitsuena gidoia da. Taldean lan egiten da eta oso garrantzitsua da guztiek ideia berberaren inguruan lan egitea. Guri hori lortzea apur bat kostatu zaigu. Hasieran bakoitzak bururatzen zitzaiona egiten zuen, hobeto zeritzona, baina disziplina apur bat behar da.



Josu Aztiria

Zumarraga 2055

2005eko urriko Otamotz aldizkari mitikoarekin egin dut topo, alea hartu dut eskuetan eta bertan nire lagun Ibon Garmendiaren artikulua zetorren. Gaztetan idatzitako artikulua zen hura irakurri, eta bertan plazaratzen zuen galderari erantzutea erabaki dut etorkizuna ezagutzeak ematen duen harrotasunaz. Barkatuko dit Zumarragari buruz bakarrik idazten badut, baina 77 urte ditut jadanik eta ez gara orain aldatzen hasiko, ezta?

Oraindik lanera Donostiara egunero joaten jarraitzen dut, nahiz eta telematikoki etxetik lan egin dezakedan, kontuan izan jubilazioa 80 urtera arte luzatu zutela pentsio sistemaren arriskuaren arrazoia zela medio.

Telematikak ematen dit Zumarragan lan egiteko aukera bakarra, aspalditik Zumarragako ekonomia egitura txikitu baitzen eta bertako garapen endogenoa sustatzeko agintarien estrategia faltak bertako ekonomia balio erantsi gutxiko jardueretan oinarrituz joan da. Debagoiena eta Donostialdeko zentro ekonomiko garrantzitsuenetan loturik lo egiteko herria soilik bilakatu da tamalez. 2. mailako azpieskualdea. Enpresa indartsu eta ekonomia sozialaren presentzia hutsalaren ondorioak. Globalizazio ekonomikoaren korranteek gogorrago astindu gintuzten.

Ahaleginak ez ziren falta izan bertako enpresa historiko eta handienak herrian jarrai zezan. Argixaoko futbol zelaia izena aldatu zion udalbatzak, "Arcelor" bezala bataiatu zuten berunezko zelaia. Emaizta onik gabe. Ingurumen legeak saihestu eta lan kostuak jaisteko Senegalen kokatu zuten Zumarragako lantokia arrazoi komertzialak zirela medio. Ingurumen nahiz osasun kostuak sozializatu eta irabaziak pribatizatu. Axioma perfektua. Kostuak kostu, bertako sindikatu bertikalak egokitzat jo zuten operazioa bere garaian. Berun gutxiago amasten da ordudunik, baina ordura arte amastutako guztia?

Herriko alderdi politiko nagusien borondatez urte-etan zinegotzien liberazioa sistematikoa bihurtu zuten eta herri lanaren aldeko borondatea desagertuz joan da. Motibazio ideologikoari motibazio ekonomikoa gailendu zaio. Lan politikoa eta teknikoa bereiztea izan zen aspaldian herri lanaren funtsa eta joko araua. Joera bestelakoa izan da, lan politikoa profesionalizatu da soldatapeko bihurtuz eta lan teknikoa zerbitzu enpresen esku uzten da poliki poliki. Efizientzia arrazoiak zirela medio. Non ote demokrazia eta aurrekontu parte hartzaileak aldarrikatzen ziren garaiak?

Santa Isabel festak kultur zerbitzuak eta kalitate ziurtagiri guztiak dituen enpresa batek antolatzen ditu oso modu efizientean. Ondoren betiko kexak, gazteak ez dira inplikitzen eta mozkortzen besterik ez dakite. Baina, tira, herritara orokorrean gustura dago Santa Isabelak uztailaren 2an izaten jarraitzen dutelako eta ezpata dantza egiten delako oraindik. Genero arazoa gainera ez da azaleratu oraindik. Antioko Hotela herriko jatetxe famatu batek kudeatzen du orain eta bertan egiten da orain Santa Isabeleko herri bazkaria. Jaitsiera ofizialik, berriz, ez dago, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailaren Ospakizunetarako Legeak debekatu baitzuen segurtasun arazoak zirela medio.

Zer gehiago? Miguel Lopez de Legazpiren estatua aparte urte luzez bere burua "sozialista liberaltzat" jotzen zuen alkate txiki baten estatua dago, Leturiasetako auzoa El Salvador bihurtu zen eta Zumarragako geltokitik Urretxurako sarrera itxia jarraitzen du (Errotanda madarikatua!). 50 urte geroago ere txakurrak oinutsik.

Baina bada berri onik txikito. Orain 2055ean Zumarraga ez da Urola Garaia, Goierrri Garaia gara. Eskerrak. Hori behintzat lortu genuen.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel: 943 722599

ZENBAT BURU HAINBAT ABURU

Non egiten dituzu erosketak? Kontsumo ohiturak asko aldatu direla uste al duzu?



Judith Garcia

Haurrentzako arropa normalean herritik kanpo erosten dut, herrian eskaintza txikia eta garestia dagoela iruditzen baitzait. Gainera, eguraldi txarra egiten duenean herrian ez dago haurrekin zer egin. Egun garai batean baino gehiago kontsumitzen dela uste dut. Ni arropa begiratu eta erosi zalea naiz, batik bat.



Susana Hernandez

Zentro komertzialetara denborapasa joaten gara, baina, azkenean, beti erosten dugu zer edo zer. Hala ere, janaria eta kontsumo gaiak beti herrian erosten ditut. Egia esan, erosketak herrian egiteak abantaila asko ditu.



Rakel Arrizabalaga

Etxarrira joan naiz bizitzera eta bertan erosten saiatzen naiz. Izan ere, amak denda izanda, normalean ez naiz zentro komertzialetara joaten. Gero eta gehiago kontsumitzen da eta ez dakit jendea nola moldatzen den etxea ordaintzeko eta horrenbeste erosketak egiteko.



Casildo Fabian

Janaria herrian eta arropa hiriburuan erosteko ohitura dugu. Izan ere, han aisialdirako eskaintza zabalagoa dago. Egun garai batean baino hobeto bizi garela eta produktuen kalitateari gehiago begiratzen diogula uste dut. Egunean bizi gara eta gehiegi kontsumitzen dugu.

ETXABURU
merenda-lekua



Santa Barbara bidea - ☎ 943 72 22 77 - URRETXU

HERCE
Muntai eta instalakuntza elektrikoak
Enpresa mantentua
Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
Mugikorra: 656 703 392

20700 URRETXU

TABERNA
Jatetxea
JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura
Mediku-homeopata kontsulta
Labeaga, 30 - Urretxu - ☎ 943 72 27 80

**Denda alokatu edo
saltzen da Antzuolan
Martxan dagoen
argazkidenda-bitxitegia**

943 78 70 66
635 757 271

BIONA

AROSZTEGIA
Altzariak neurria
☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Mikel Lizarraga, kamara



Nafarroan jaio bazen ere, Mikel Lizarragak bere bizitzaren zati handi bat Urretxu-Zumarragan eman du. Garai batean fraile izan zen eta Europako herri ezberdinetan langileen eskubideen alde borrokatu zen. Herrian eman zituen lehenengo urteetan ere horretan aritu zen buru-belarri. Ondoren, 80ko hamarkada hasieratik hona, euskara irakasten jardun da nagusiki. Duela urte pare bat jubilatuta zen arren, euskararen aldeko lanean darrai.

Nongoa da zure familia Mikel?

Sakana aldeko herri txiki batekoak gara, Dorraokoak. Han jaio eta lehenbiziko urteak bertan pasatu nituen. 11 urterekin joan nintzen bertatik, baina sustraiak han ditut. Bi anaia bertan bizi dira.

Nora joan zen 11 urteko mutikoa?

Fraideetara joan nintzen, Kaputxinoetara. Garai hartan, hura ilusioa zen. Izan ere, nire herrian 11 urterekin lanean hasten ziren. Kaputxino bizardun bat eskolara joan zen eta zerua ireki zigun: ikasi egingo genuela, futbolekin ere bai, misioetara joateko aukera izango genuela... Nire kasuan pribilejioa zen kanpora ikas-tera joatea. Etxean hiru mutil eta bi neska ginen eta anai zaharrago batek eta biok altxatu genuen eskua eskolan fraile joateko. Anaia dagoeneko etxean laguntzen hasita zegoen eta ni joan nintzen. Bost gazte joan ginen herri txiki hartatik.

Zer nolako aldaketa somatu zenuen?

Dorrao oso herri euskalduna da eta Altsasura joan ginenean "los vasquitos" deitzen ziguten. Eskolan gehienak Iruñea eta Aragoitik joandakoak ziren eta euskaldunak gutxiengoak ginen. Eskolan *beste nafar horiek* agintzen zuten.

Zenbat denbora eman zenuen Altsasan?

Bost urte eman nituen. Krisialdiak izan nituen, baina bidea egin nuen; ikasketetan ondo bainenbilen. Handik Zaragozara joan nintzen eta bertan hasi nuen erromesaldia: Zaragozan hiru urte eman nituen, Zangozan beste urte bat eta azkenak Iruñean. Bertan bukatu nituen ikasketak. 60ko hamarkadan sartuta geunden dagoeneko eta apurtzeko izpiritua zegoen. Gure kurtsoa izan zen muga: protestaka hasi ginen, debekatua zeudenak egiten hasi ginen, bizarra eta koronilla eraman beharraren aurka hasi ginen...

Zer ikasketak egin zenituen?

Denetik ematen genuen. Apaiztu ondoren, berriz, teologia ikasi nuen, baina aginduz. Orduan oso gutxi errespetatzen zuten norberaren joera. Tuteran nengoela, lehen urtea praktiketan, Erromara bidali ninduten. Epe luzea neukan libre Erromara joan

da euskaltzalea

baino lehen, aita hil zen, krisialdi bat izan nuen eta hiru hilabete pasatu nituen herrian nekazaritza lanetan. Herriko gazteekin harremanak izan nituen eta haien giroan murgildu nintzen. Hori bertako batzuentzat eskandalua izan zen: nire gainekoei jakinarrazi zieten eta asteburuetan Altsasura erretiratzerara behartu ninduten.

Zer moduz Erroman?

Esperientzia polita izan zen, mundu guztiko jendearekin harremana egin bainuen. Orduan ezagutu nituen Euskal Herriko hainbat kide, frantziskotarrak-eta. Tartean Pello Zabaleta legazpiarra zen. Orduan hasi nintzen euskararen ezagutza formala izaten eta hemengo egoeraz jabe-

“Carrero zerura bidali zutenean, jakin gabe, Zaragozan panfletoak banatzen ari nintzen”

tzen: euskaraz hitz egiten genuen, euskara klaseak hartu nituen, Burgosko prozesuaren inguruko manifestuak egin genituen...

Elizaren instituzionalizazioa ere bere gordinean ezagutuko zenuten...

Fedea galtzeko lekuri aproposena Erroma da. Ideia berriak ere bazeuden, kontraesan pilo bat ikusi nituen eta krisialdi sakona hasi zen. Munduarekiko zirrikitu bat ireki zen eta apurtu egin nuen. Dena den, prozesu pertsonala izan zen. Horretan nahiko bakartia naiz. Oporretan komentuetara joatea zen ohitura, baina nik nire kabuz antolatuta nituen oporrak: Parisera joan nintzen eta ikasle arrunten erresidentzia hartu nuen. Frantses klaseak hartzen eta lanean hasi nintzen. Horretaz gain, udako lantegietan izena eman nuen. Horrek garrantzia handia izan zuen nire bizitzan, gazte normalekin kontaktuan jarri bainintzen. Hala, erlijioaren bidea baztertzeko joan nintzen.

Bigarren ikasturteko oporretan Ingalaterrara joan nintzen.

Zer egin zenuen lizentziatu ondoren?

Filipinetara irakasle joatea gonbidatu ninduten, baina dagoeneko ez nuen gehiegi sinisten eta langile auzo batean lan egitea eskatu nuen. Frantziara bidali ninduten: etorkinen kaperau izateaz gain, lana ere egin behar nuen. Erlijioa nire kezkekin lotzeko azken aukera nuen eta onartu egin nuen. Bi urte eman nituen bertan: 1970 eta 1971n. 68ko maiatzean gertatutako eraginak ezagutu nituen. Oraindik fraidea nintzen, baina nire bizitzako beste aro bat hasi zen bertan: langileen aldeko borrokan murgildu nintzen. Frantzia hasi eta orain arte.

Zer egiten zenuten?

Zaila izan zen. Izan ere, komite bat eratu, sindikatu ofizialen aurka jo eta greba antolatu genuen. Unibertsitate munduan Maoisten babesa genuen, mehatxatu egin gintuzten... Agerian gelditu nintzen eta pertsonal-buruak muga gertu zegoela eta kontuz ibiltzeko esan zidan. Garai hartan borroka armatua baztertu eta borroka politikoa ildotik ari ziren ETAKideak ere ezagutu nituen. Haiiek ea Frantzia zer egiten nuen esan zidaten, nire lekua Euskal Herrian zegoela. Arrazoiak zuten: Altzara etorri, langileen parrokiak batean lan egiten zuten gazte batzuekin jarri eta lanean hasi nintzen.

Langileen eskubideen alde hor ere?

Zardoya igogailuen enpresan lan egiten nuen. Familia enpresa zen, baina garai hartan Otis enpresa amerikarra sartu zen. Honek gure errebindikazioei muzin egin zien eta errepresioa hautatu zuen. Greba egin genuen eta enpresak 17 bat kaleratu gintuen. Atxiloketak hasi ziren eta ihes egin behar izan nuen: Donostiatik Hondarribiara, Hondarribiatik Zaragozara... Carrero Blanco zerura bidali zutenean, ezer jakin gabe, panfletoak banatzen ari nintzen Zaragozan. Hortik Madrilera joan nintzen eta dagoeneko desagertu den alderdi batekin kontaktuan jarri ninduten: Organización Revolucionaria de Trabajadores (ORT).

Herri Aldizkaria

Otamotz

aldizkarian publizitatea sartu nahi baduzu, deitu 943 03 64 74 telefonora.

Merkea eta ona!

Parwanki

Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13



ALTZARIAK
MERKA-UROLA

Mugitegi, 17 Tel. eta faxa 943 72 58 28
URRETXU

centro óptico

Javier Arratibel

óptica

Ikusmenaren neurketa - Begietako tentsioaren neurketa - Graduatutako eta eguzkitarako betaurrekoak - Lentilak - Termometroak eta barometroak

Soraluze, 10 ZUMARRAGA
☎ 943 72 54 84



ARKUPE TABERNA

ZUEK BAI JAKIN!



Muttikotan, Altsasuko komentuan.

Parisen, 1968an, frantseseko klaseak hartzen.



Itsason, 1993an.



Noiz itzuli zinen Euskal Herrira?

Arriskua txikitu zenean, baina alderdian jarraitu nuen. Lazkaon jarri nintzen bizitzen, arrebaren etxean, eta Patrizion hasi nintzen lanean. Francoren azken urteetako borroka guztiak harrapatu gintuen: Irimoren magalean, Antioko ermitatik gora... biltzen ginen borrokako jendea. Ez naiz ausarta, baina egin beharra zegoen. Gernikako Arbola plazan motoa lapurtu eta kanguroa jarrita Legazpin propaganda banatzen genuen. Biharamunean motoaren jabeari gutuna bidaltzen geniola esan beharra dago: iraultzaren alde lapurtu genuela eta halako lekutan utzi genuela.

Etxean ba al zuten zure ibileren berri?

Susmoa, bai. Garai hartan, dena den, isilean bazegoen konplizitatea. Izan ere, nik nahiko egoera estuetan sartu nituen. Behin poliziak arrebaren pisua arakatu zuen, esaterako.

Ez al zintuzten sekula atxilotu?

"Txiki" eta Otegi afusilatu zituztenean alde egin beharra izan nuen eta itzuli nintzenean, koartada txarra nuenez, Patrizioko lanpostua galdu nuen. Ondoren, Franco hil baino hiru egun lehenago, hiru egun pasatu nituen komisaldegian. Lazkaoratu eta hurrengo goizean arrebak esnatu ninduen hil zela esanez.

Zeintzuk ziren zuen aldarrikapenak?

Urte oso interesgarriak izan ziren, orduan finkatu baitziren hitzarmen kolektiboak. Metalurgia beti izan da langileen artean aurreratuena eta lurraldeko hitzar-

menaren alde mugimendu handia izan zen. Egunero Orbeagoz aurrean orri informatiboa banatzen nuen, baina lantegi hauetan gure sindikatuak oso presentzia txikia zuen. Orduko akatsetako bat hori izan zen: hamaika alderdi zeuden eta bakoitzak bere sindikatua zuen.

Zerk ezberdintzen zintuzten beste alderdi eta sindikatuengatik?

Tximinoek eta gizakiok zer alde dugu geneetan? Kasu askotan ezer gutxi ezberdintzen gintuen. Klandestinitateak atomizazioa errazten zuen, zaila baitzen elkartzea. Bestalde, guztiok oso dogmatikoak ginen: guk daukagu arrazoia eta beste kritika. EMKrekin elkartzeko zorian izan ginen, Partido de los Trabajadores de Españarekin batzera iritsi ginen, PCE ofiziala kritikatzeko genuen... Lehenbiziko hauteskunde ondoen desagertu ginen, baina Nafarroatik diputatua ateratzeko zorian izan ginen. Gure alderdia apaiz aurrerakoien ingurukoa zen, Nafarroan apaiz batzuek indarra zuten langile auzoetan eta hortik botu asko atera genituen.

Hauteskundeetara aurkeztu al zinen?

Zumarragako alkategai izan nintzen! Dirulaguntzak lortzeko udal kopuru zehatz batean hautagaitza aurkeztu behar zen eta hemen aurkezteko agindua jaso genuen. Hautagai zerrendan lagunak, ez dakit noren ama... sartu nituen. Horren ondoren alderdia desagertu zen eta ez naiz gehiago sigla baten azpian aritu.

Franco hil baino apur bat lehenago

Patriziotik bota zintuztela esan duzu, nora jo zenuen?

Sei bat hilabete eman nituen langabezian, arrebari tabernan laguntzen. Gero eraikuntzan hasi nintzen, lehengusu batekin. Barrenkale amaierako etxeetako adreilu gehienak nire eskutatik pasatakoak dira. Casino gaineko pisu batean 11 bat lagun jarri ginen. Dirurik sekula ez dut izan: Frantzian nengoela, Francoren pagari uko egin nion eta Ferrolen erahil zituzten langileen familiei, errefuxiatuei eta hemengo langileen mugimenduari eman nien. Altzan, berriz, komunismoa praktikaten genuen eta gure soldadak kutxa komunera joaten ziren. Handik soinean neramanarekin atera nintzen. Casino gaineko etxean ere dena kaxa batera joaten zen. Ezkongabea naizen arren, beti jendearekin bizitzen egon naiz: fraileekin, alderdikideekin... Independiente jarri naizenean bakarririk aurreztu dut dirua.

Noiz utzi zenion fraide izateari?

Praktikan 1972an, baina prozesua bakardadean eraman nuen eta papeleoa Altzan nengoenean bete nuen; handik lau urtera edo. Amorrua eman zidan, galdera guztiak sexuaren eta emakumeen ingurukoak baitziren. Nik, eliza uzteko arrazoia bezala, eliza barruan iraultza egiteko modurik ez nuela ikusten jarri nuen.

Nola hartu zuten erabakia zure etxean?

Gurasoak oso gazte hil ziren, semea fraide zutela eta pozik. Nire kurtsoan 11 atera ginen Iruñetik, baina bakarrak jarraitzen du. Uzten lehena izan nintzen.

ZUEK BAI JAKINI!

Euskaltegiko gainontzeko irakasleekin.



Venezuelan oporretan, 1990ean, Juan Miguel Ostiz zenarekin.



Euskaltegira bisitan, Sorkunde Agirreburualde eta Amalia Ugartemendia lankide oniekin solasean.

Fraidea, sindikalista... gehienok euskara munduan egindako lanagatik ezagutzen zaitugu, ordea.

Lehengusua Gasteizera joan zen eta lanpostu finkoa nuen arren, hemen sustraiturik nengoenez, hemen gelditu nintzen. Orduantxe hasi nintzen euskararekin, beharrak bultzatuta, 1980an. San Jose ikasketeko irakasle batzuek klase partikularak emateko eskatu zidaten eta hala hasi

“Nire kontzientziak langileei laguntzeko onena langilea izatea zela esaten zidan”

nintzen. Klaseak emanez alfabetatu nintzen. Euskaltzaindiako eta Hizkuntza Eskolako azterketetaara aurkeztu eta, emaitza jakin gabe, Eusko Jaurlaritzaren irakasle deialdian izena ematera joan nintzen. Jaurlaritzak udalei euskaltegiak irekitzeko gonbitea pasatu zien eta Urretxu, Arrasate eta Ermua izan ziren baiezkora ematen lehenak. Hala, 1981ean Urretxun hasi nintzen beste bi lagunekin batera. Jose Mari Lasa eta Jose Luis Garmendia izan ziren kudeatzaileak.

Lehen urteak gogorrak izango ziren.

Eskaera izugarria zegoen, baina

lehen bi urteetako eskema oso itxia zen: derrigorrez bost orduko ikastaroak izan behar ziren. Gero, gaur egungo modelo guztiak atera ziren. Euskaltegiaren ardura nuela, 9 irakasle eta 200 ikasletik gora izatera pasa ginen. Jose Mari Etxaniz zena eta biok Uda Ikastaroak antolatzen hasi ginen eta oso arrakastatsua izan zen: 400 ikasle izatera iritsi ginen. Lizeoko gela guztiak hartzen genituen, 25 irakasle kontratatu genituen Euskaltegian langileen alde egitea ahaztu gabe lan egin nuen. Gure hitzarmenaren negoziazioan parte hartu nuen.

Euskaltegiko lana asko aldatuko zuen urte hauetan guztietan...

Hasierako urteetako ikasle moeta gustukoagoa nuen. Garai hartan inolako arazorik gabe planteatu zitekeen, esaterako, astebete Leitzara joatea. Oraingo ikasleagoak mila eginkizun ditu. Ikasle arrakastatsuenak euskararen aukera egin eta erabat murgildu direnak izan dira.

25 urte inguru eman dituzu euskara klaseak ematen. Zer bilakaera izan du euskarak bi herri hauetan?

Ez dizut ezer orijinalik esango. Ezagutza igo dela ez du inork zalantzan jartzen, baina erabilera da pil-pilean dagoen kontua. Orain trenean ibiltzen naiz eta elkarrizketa euskaraz eramaten duten lehen baino gazte gehiago ikusten ditut. Duela urte batzuk, Lizeotik iriteten ziren gazteek erdara hutsean egiten zuten.

Jubilatu ondoren, zertan zabilta?

Euskararekin lotuta jarraitzen dut:

irakurle talde bat eramaten dut, Mintzalagun-taldetxo batean parte hartzen dut... Bestalde, Alboan Gobernu Kanpoko Erakunde sartu naiz bolondres eta astean bi egunetan laguntzen dut. GKE honek hezkuntza egitasmoetan lan egiten du, batik bat. Hegoaldeko herrialde batean urte pare bat emateko asmoz sartu nintzen, baina oso zaila da. Izan ere, dedikazio handia eskaini behar zaio, ondo prestatu behar da... Internazionalista ere izan naiz. Langile mugimendua eta internazionalismoa elkarrekin lotuta daude: Frantzia geratzen ari den sustraiak nondik datoz? Nazioartean dauden ezberdintasunetatik.

Fraide gutxi egingo zuten zuk bezainbeste lan.

Askok harrizten dira ikasketak eginda urte askotan langile arrunta izan naizelako. Sektore guztietan lan egin dut inongo arazorik gabe: piko eta pala, trenbidean ere aritu nintzen. Nire kontzientziak langileei laguntzeko onena langile izatea zela esaten zidan. Hemengo langileei ez zitzaion fraidea langilea izatea buruan sartzen. Altzan nengoela, lantegiko kide baten semea bataiatzea tokatu zitzaidan eta lantegian euren lankide bat fraidea zela zabaldu zen. Batzuek ez zuten sinesten.

Zaletasunen bat ere izango duzu...

Senitartekoek Jacatik gertu etxe bat dute eta ibilaldi ugari egiten ditut. Nafarroara ere joaten naiz, anaiarengana. Kontzejuko agiritegia desastre eginda zegoen eta txukuntzen ari naiz. Batekin eta bestearekin, hala ematen dut eguna.

Ipeñarrieta eta Balent



Asier eta Inixio Izagirre eta Egoitz Armaolea, Izagirretarren idiekin, Ipeñarrieta jauregi gurrean.

Herri gutxitan daude Urretxun eta Zumarragan bezainbeste idi pare eta idi-probatarako zaletasuna inguruko herrietan baino handiagoa da. Hala, bi herriotako festa nagusietan idi-proba saioak jokatzeko dira eta ez dago kanpotarrei deitu beharrik saioa osatzeko. Zaletasun handi honen arrazoiei buruz hitz egiteko Ipeñarrietako Inixio Izagirrerekin eta Balentiña jatetxeko Egoitz Armaolearekin izan gara. Izagirrek eta Armaoleak desafioa jokatuko dute martxoan Azkoitian.

Desafioa jokatzeo asmoa omen duzue...

Inixio: Astelehenean desafioa adostu eta asteartean Itziarren denak jakinaren gainean zeuden dagoeneko. Beste komentariarik ez zegoen. Asteazkenean telefonotik deika nituen: *Apostua egin al duk? Galduko duk!*

Egoitz: Horra joan egin behar da, etxean geldituta ez dago ezer eta! Geldi egonda, jan besterik ez dute egiten!

Inixio: Jaten ematen egunean hogeituro edo gastatzen dira, baina gares-

tiago irteten da idiak mugitzea. Iluntzean joan eta ordu eta erdi behar da gutxienez zer edo zer egiteko. Afiziorik ez daukanarentzat lan zaila da. Gure semea kamioiarekin ibiltzen da eta kamioia utzitakoan gozatu egiten du idiekin. Bestalde, idiak dauzkanak diru piska bat ekarri nahi izaten du etxera, gastuak estaltzeko behintzat.

Zuen lehenengo desafioa da, Inixio.

Egoitz: Lehenengo desafioa? Sekula ez zarete joan jokora?

Inixio: Ez naiz sekula jokozalea izan. Gure aita zena bizi izan balitz, jokora ezta... Makina bat aldiz izan zituen idi onak, buina... Ez da ona, gainera. Proban ibilitako idiak ezin dira gero soroan arrastotan eraman, bizi ibiltzen ohitzen baitira.

Hemen afiziorik ez da falta...

Egoitz: Oraintxe hasi da hemen.

Inixio: Lehen ere beti izan da. Ni mutikoa nintzela, Urretxun gure aitak eta Beangoak egiten zuten proba. Abenduko

ña, desafiorako prest

ferian izaten zen eta alkateak esaten zuen nortzuk parte hartu behar zuten.

Egoitz: Egun idi asko daude hemen. Probara 9-10 pare joaten dira... la baserri guztietan daude idiak.

Inixio: Mutikotatik ezagutu ditut idiak etxean. Beste asko utzita izan dira, baina orain jarri egin dituzte. Kale umek ere ipini dituzte idiak eta!

Zergatik ari da ematen fenomeno hau?

Inixio: Urte batzuetan jendeak idiengatik diru dextente ordaindu du eta, horren pozarekin edo ez dakit zerekin, denak idiak jartzen ari dira. Puntan zebiltzanek gustatzen zitzaion idiarengatik bi milioi pezeta pagatzen zuten, igoal. Lehengoan albatariarekin Ormaiztegitik

Egoitz Armaolea:
"Gure idiak gu baino hobeto zainduak daude"

Legazpiraino 60 iditik gora kontatu genituen. Honek zortzi bat izango ditu, honen aitonak beste lau bat edo gehiago izango ditu, gurean lau daude... Zumarragan ere mordoak: Urruztin, Igaraberrin, Aizpurun, Sagaspen, Elorriagan...

Egoitz: Orain bezainbeste idi-proba ez dira sekula izan hemen. Duela 6-8 urte, zuek pare bat, gure zaharra beste pare batekin, Elorriaga eta Urruzti, ez zegoen gehiago! Aurten 9 pare egon dira Zumarragako proban!

Inixio: Hurrengo urtean beste bi pare gehiago egongo dira igoal, gainera!

Inguru honetan horrenbeste idi daudela eta, zer esaten dizue kanpoko jendeak?

Inixio: Batzuek zuek zoratuta zaudete esango dute. Bigarren idi pare jarri eta... zer pentsatzen duzue zuek?

Egoitz: Nik idiekin ez dut oraindik zorrik egin. Beti zer edo zer kobratzen

da. Gastutarako adina ateratzen da.

Hemendik kanpora ere ez zarete gaizki moldatzen, beraz.

Inixio: Geroz eta okerrago, geroz eta lehia handiagoa baitago. Dena den, Legazpin idiak ipini dituztenak kale umek dira eta aspertu egingo direla uste dut. Izan ere, haiek idiak probarako prestatzerako bospasei urte beharko dituzte. Idiak kanpora irteteko moduan jartzeko zazpi bat urte behar dira.

Egoitz: Batzuk, lehen proba egin eta kendu egin behar dira. Onak gutxi irtezen dira, gainontzeko kiroletan bezala.

Inixio: Gizonak bezalaxe, animaliek ere berezkoa behar dute.

Nondik ekartzen dituzue idiak?

Inixio: Zamora, Galizia eta Portugal alde horretatik. Hemen bertan ere ari dira idiak hazten, baina hemen jaiotakoak ez dira oraindik onak irten. Hona bi edo hiru urterekin ekartzen ditugu eta, ondoren, laupabost urte izaten ditugu baserrian prestatzen. Igaraberrin hemen jaiotako idi pare bikaina atera zuen Zumarragan, baina ez zuten kolperik. Idi pare on batek jenioa, petxua, preparazioa... behar ditu, gizonak bezalaxe.

Berezko dohainez eta prestaketaz gain, dopinaz ere asko hitz egiten da...

Inixio: Drogatu egiten dituztela asko esaten da. Futbolariak, txirindulariak... gizonak drogatzen ari dira eta ganadua drogatzea gaizki iruditzen zaio askori.

Egoitz: Nik hori etxean ikusi dut: gure zaharrak lehen beti botila bana kafe eta sei bat zentramina ematen zizkien. Duela bost urte dopin kontrolak hasi ziren eta dagoeneko ez dago hori egiterik. Hala ere, droga asko dago. Ez dakit zer sartzen zaien, baina asko. Dirudun jendeak positiboa ematen ez duen produktu bat erabiltzen du. Hori emanez gero, idi zaharrak aurrera joaten dira. Zaldiak bezala joaten dira!

Inixio: Idia balio ez duelakoan saldu, horiek hartu eta aurreko puntara atera dute. Lana bukatu eta idiak gelditu ezinda. Ezin eutsi! Hiruzpalau gizon aurre-

an jarri eta hala ere, aurrera.

Dopina dela, besteak beste, idi-probak astakeria direla iruditzen zaie askori.

Inixio: Ormaiztegin idi-probak antolatzekotan ibili dira eta zinegotziak animalei tratu txarra ematen zaiela esan du. Zenbatek egurra ematen die idiei, baina Urretxu eta Zumarragan ez da halakorik egiten. Hori plaza itxietan eta dirua jokatzen den tokietan ematen da.

Egoitz: Idi-probak baino okerragoak dira zezenak... Gure idiak gu baino hobeto zainduak daude. Gauean mantatuta lo egiten dute eta!

Inixio: Ordu erdian lan pixka bat egin behar dutela? Hortxe daude gizonak bizikletan-eta... Idiak berotu egiten dira,

Inixio Izagirre:
"Idiak, drogarik eman gabe badaude, ez dira hondatzen"

baina drogarik eman gabe badaude, ez dira hondatzen. Urretxun proban ibili, joan etxera, mantatu, jaten eman, utzi, hurrengo egunean askatu eta jolasean ibiltzen dira.

Santa Lutzitan zure idiak aitonaren idiekin eta Elorriagakoekin neurtuko dira Egoitz, zer esperantza?

Egoitz: Irabazteko esperantzarekin beti, baina, kontuz!

Inixio: Elorriagak ere, pisu libre-rako behintzat, idi onak du. Bi plazaren barruan edo sartuko dira. Probarik finenak hemen jokatzen dira: dirurik ez da jokatzen, baina joaten direnak sailkatzera joaten dira. Giro ona egoten da, Santa Lutzitan jendea latz egoten da ikusten.

Egoitz: Hondarra bota eta bota ari dira eta plaza izorratzen ari dira niretzako, zailtzen.

Inixio: Plaza luzea ere bada eta motzean ohitutakoak bete egiten dira.



Manuel Iraola

Manuel Iraola Bidania jaio zen, baina oso gazte zela Zumarragara etorri zen bizitzera. "13 urterekin etorri nintzen. Lehenengo aita eta anaia etorri ziren lanera, 1956ko otsailan, eta urte bukaeran familiako gainontzekoak etorri ginen".

Manuel ere berehala hasi zen lanean. "Urtarrilean hasi nintzen lanean, Orbegozon. 45 urte eta 9 hilabete egin nituen bertan, duela hiru urte jubilatu nintzen arte".

Azken hiru urte hauetan Iraolak makina bat kilometro egin ditu mendian. Izan ere, mendizale amorratua da. "17 urterekin hasi nintzen mendian serio, Pepe Gutierrez, Eladio Torres, Jesus Mari Laskurainekin... Concurso de Montaña deitzen ziren haletan

parte hartzen. Helburua jaiero-jaiero mendi bat edo gehiago igotzea zen. Orain erraz egiten da, baina orduan askotan bizikletan joaten ginen! Zegamako geltokian, berriz, Gipuzkoa osoko 100 lagun jaisten ginen trenetik Urbia eta Aitzgorrira joateko".

Beranduago, Piriniotara eta Alpeetara joaten ere hasi ziren Iraola eta bere lagunak. "Piriniotara 1963an joan nintzen lehenengoz. Orduetik, bertako 100 gailur baino gehiago igo ditut. Perdido mendia 16 urtetan jarraian urtero igo nuen. Alpeetan, berriz, hiru aldiz izan naiz eta Mont Blanc eta Monte Rosa igo ditut, besteak beste".

Iraola goizero joaten da mendira eta arratsaldeetan Ostadar elkartearen laguntzen du. "Izaspi eta Samiñoko buelta eginda erlaxatuta itzultzen naiz, eguneko ogia bezala. Aitzgorrira eta Urbiara zenbat aldiz joan naizen ere ez dago esaterik, milatik gora seguru".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Sekula pentsatu ere ez dut egin!

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Mendira joatea: ibiltzera eta perretxikotara.

-Bizitzeko toki bat?

Jaioterria, Bidania.

-Sekula igo duzun mendirik altuena?

Mont Blanc

-Mendirik gustukoena?

Posets.

-Bueltatxoa emateko?

Bueltatxoa emateko, Urbia eta Aitzgorri. Aitzgorrira joan, Urbian arrautza pare bat jan eta hiruak aldera etxera bueltatzea bezalakorik ez dago.

-Gustuko mendizalea?

Felix Iñurrategi.

-Irimo ala izaspi?

Izaspi.

-Mendirako lagunik onena?

Norbera onena... Hamarretik bederatzitan bakarrik ibiltzen naiz.

-Ilehoriak ala beltzaranak?

Bai ilehoriak eta baita beltzaranak ere.

-Egindako azken oparia?

Ez naiz behin ere izan detailezalea izan.

-Eta jasotakoa?

Urtebetetze egunean egingo zidaten.

-Data bat?

San Jose eguna oso garrantzitsua izan da beti gure familian, gure aitak egun horretan betetzen baitzituen urteak.

-Neska eta mutil izen bana?

Aitor eta Amaia, seme-alabenak.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

Diario Vasco.

-Gustuko telebista saioa?

Pilota da gehien atsegin dudana, baina kirol saio guztiak ikusten ditut.

-Bereziki gorroto duzuna?

Politikariak elkarren artean biraoka hasten direnean, ez dut atsegin.

-Liburu bat?

Orain Reinhold Messner-ena ari naiz irakurtzen.

-Filme bat?

Orain "bakeradak" ikusten ditut gehienbat, ia egunero ikusten dut filmeren bat. Garai batean ikusitakoan artean "Los diez mandamientos" gogoratzen dut.

-Soinu bat?

Soinu txikiarena.

-Usain bat?


Mentafinarena.

-Janari bat?

Amorraina, perretxikoak eta entsalada izan ezik, gainontzeko guztia.

-Ura ala...

Gustatu-gustatu, cava gustatzen zait.



**DAGOENEKO ABIANDIRA #81. ETA #114. PROIEKTUAK;
LAZKAOKO ETA ZUMARRAGAKO ZAHARREN EGOITZA
BERRIAK.**

Inbertsioa: 3.884.158 euro

Gure adinekoei kalitatea eta gokotasuna bermatuko dizkieten proiektuak dira. Hainbat zerbitzu eta prestakuntzak izan ditzaten. Aparteko Inbertsio Planaren barruan aurrera doan errealitatea da. Beasain eta Legezpiko hirioi eremu berriak, Ordiziako Sueskola eta Beasain-Durango errepidea bezelako... Egunetik egunera errealitate bihurtzen ari zaren proiektuak dira.

Aparteko Inbertsio Plana.
Golerrin ere bai.
Uroia Garalan ere bai.

Aparteko Inbertsio
Plana 2004-2007



Plan extraordinario
de inversiones 2004-2007



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputazioan Foral de Gipuzkoa



SUKALDE ERAKUSKETA



Ipeñarrieta, 5
☎ 943 72 50 75
URRETXU

San Lorenzo, 1
☎ 943 53 35 48
OÑATI

Udala enparantza
☎ 943 79 00 43
ARRASATE